

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Edozein negozio-ereduren oinarria, *Canvas* ereduak dioenez, bezeroak dira, hauek baitira gure enpresa aurrera eramango dutenak.

PARKALAI enpresa, **naturaz** gain, **kirolaz** ere gozatu nahi duten jendearentzat dago zuzendua; izan ere, gure enpresak naturarekin oinarritutako heziketa paregabea eskaintzen du kirolaz gozatzen duzun bitartean, antolatutako ekintzen bitartez, naturarekin lotutako gauzak ikasiko dituzulako.

Merkatuaren **segmentazio** motari dagokionez, gure enpresa segmentatutako merkatuari zuzenduta dagoela esango genuke. Bezero bakoitzak, behar desberdinak izango ditu; batzuek naturaren beharra edukiko dute, beste batzuk kirolaren eta beste batzuk beharbada ez dute inolako beharizan konkreturik.

